

# Erreterian "gizon" berriro

## Koldo Ordozgoiti Juanenea

**B**i argazki dira, eta biak leku eta egun berean eginak dira. Argazkiaren egileak, Jesus Elozegi Irazustak ezin izen esanguratsua-goa jarri zien bi irudiei, "Erreterian 'gizon' berriro" eta horren ondoren zein egunetan zeuden eginak gehitu zen: 1941eko maiatzaren 2a. Horrela izendatuta eta identifikatuta aurki daitezke Jesus Elosegiren argazki ondare aberatsa biltzen duen Gure Gipuzkoa webgunean.

Eguno Erreteria ezagututa argazkien kokagunea oso erraz sumatzen da, Aurrerako zubitik aterata daude bi argazkiak, kameraren objektiboa Etxeberrietako auzo aldera begira jarrita dago eta fokua erdi erdian Zubiaurre eta Urantz kaleen izkina egiten duen etxea azaltzen zaigu. Apropos aukeratutako markoa da, Jesus Elozegi argazkilari bikainak hain gustukoak zituen planoak finkatu ondoren argazki egilea bertan sartzeko aukera ematen duen horietako bat baita. Eta horrela egin zuen bi argazkietako batean, prestatu plana eta dena prest zegoenean automatikoa bota argazkia eta bitartean bera, egun hartan berriro "gizon" askatasuna berreskuratzen zuena, irudian sartu zen, bere familiarreko eta lagunekin batera argazki hartan azaltzeko. Jesus Elozegi duzue txapela eta betaurrekoekin azaltzen den gizona.

Arrazoia zuen Jesus Elosegik, berriro "gizon" zen, berriro pertsona zen hamar hilabeteko kalbarioa bukatuta. Elozegi, beste milaka lagunek bezala, galerianoa, esklaboa izan zen Batallon de Trabajadores batean. Estatu osoan horietako 550 inguru izan ziren eta Euskal Herrian 64, horietako dozena erdi bat gure eskualdean. Erreterian bertan Yute fabrika zaharrean izan zuen ostatu horietako langile behartuen gaztiguko soldadu talde batek. Han zeudenak bi aldiz behartuak ziren, preso ziren eta militarizatuak bizi ziren, esklabo moduan lan egitera behartuak, gerra irabazi zuen diktadura frankistarentzat.

Argazki horien historia ezagutzeko dakienarengana jo behar eta nik Adolfo Leibar Axpe aukeratu nuen. Adolfo, Jesus Elosegiren laguna

izanda, ezagutu behar zituen hor zeuden gizon eta emakumeak. Bai, baina... Adolfo askoz gazteagoa da eta handik urte batzuetara Jesusen adiskide, mendi lagun eta lankide ikerketa eta borondatezko lanetan izan bazen ere, argazkiak egin ziren garaian umea zen. Gogoan du nola ikusi izan zituen Elozegi eta bere emaztea, Pilar Sansinenea, Oiartzunen Jesus langile batallonetan zigortua zen garaian, eta ikusi San Esteban plazan zen –eta den– Castro tabernan. Eta hari horretatik tiraka askatu zuen mataza hau gure Adolfo Leibarrek.

Oarso aldizkariaren aurkezpenean hitz egin genuen, ondoren postaz, korreo arruntaz, bidali nizkion bi argazkiak eta handik aste batzuetara bide bera erabiliz, posta bitarteko eskutitzez, erantzun zidan Oiartzundik Leibarrek.

*"Estimado Koldo. Agur! Ha costado lo suyo pues casi ninguno de 'los de entonces' camina por estos lares y de los pocos que quedan –algunos– 'no rulan' como es debido. (Toca madera, Adolfo...) ¡Pero, vayamos al grano!*



*La primera foto está compuesta, de izquierda a derecha, por el propio Jesús Elozegui; junto a él la novia del "trabajador" Josemari, la siguiente es Sebastiana ("Sebas") Kamio, de 98 años, que vive todavía y que es quien nos ha facilitado la mayoría de los nombres que faltaban; Julian Elozegui, el hermano mayor de Jesús es el siguiente; la mujer que está a su lado creemos que es su esposa, la siguiente es Pilartxo Sansinenea, esposa a su vez de Jesús; mientras que la que cierra el grupo, apoyada en el petril, es Pepita Kamio, hermana*

de Sebastiana. Las dos hermanas atendían entonces en el bar “Kastro”, sito en la plaza de San Esteban, hoy conocido como Kastro-berri, en aquella taberna se reunían, cuando podían, los días de fiesta, algunos “trabajadores”.



La segunda foto comienza por Josemari, uno de los penados, nos los han identificado sin apellido, pero sería lógico pensar que fuera del mismo Batallón al que perteneció Jesús Elosegui, y siendo así se podría recurrir al Mugarri nº 16 (Isiltzen ez den isiltasuna), en el que aparecen relacionados nominalmente y por reemplazos todos los trabajadores penados que hubieron en Oiartzun. Pero solamente como Josemari... lo veo difícil. Si hubiera sido como mi hermano pequeño, que se llama Liteo, lo hubiéramos controlado a la primera. La siguiente de la foto es la novia de Josemari, después Sebastiana Kamio, Julian Elosegui, su esposa –probablemente–, Pilartxo Sansinenea y finalmente Pepita Kamio.

Y esto es todo lo que hemos conseguido. Besarkada haundi batekin...” agurtu ninduen Adolfo Leibarrek. Baina ez zen hor bukatzen lortu zutena, gutunaren berri emateko deitu zidanean, telefonoz adierazi zidan argazkiaren izenak lortzeko ibili zirenean lagun taldeak egin zuen hipotesia, esplika zezakeena, besteak beste, argazkiaren lekua eta bertan zirenen izate zergatia. Izan zitekeen –hipotesia baita– talde hori hor izatea ondoan zen Panier Fleuri jatetxean bazkaldu ondoren, Jesus Elosegik gaztigutik lizentziatzen zen egunean, agurra moduan hori ospatzeko egin zuten otorduaren ondoren. Horrela esplika zitekeen argazkian izatea Kastro tabernako bi lagunak, Josemari abizen ezaguneko Jesusekin batera gaztigu batailonean eta oraindik lizentziatu gabea zen preso eta honen andregai. Eta horiekin batera Julian –Jesusen anaia– eta emaztea, eta Pepita Sansinenea –Jesusen emaztea–. Izan zitekeen, esplikazioak badu bere logika. Bestalde, kontuan izanda garai hartan Aurrerako zubia, bere izenak zion bezala, azkeneko zubia zela, aurrerakoa Lezoko bidean, eta kontuan izanda Jesus eta Julian anaiak eta horien emazteak Tolosan

bizi zirela, gerta zitekeen argazkia hor eginda izatea, Etxeberrietako kantoi horretan banatzen zirelako Errenteria-Oiartzunen geratzen zirenen eta Norteko tren hartuta Tolosako bidea hartuko zutenen bideak.

Esplikazio batekin ala bestearekin, Jesus Elosegik argazkiei izena eta data jarri zionean oso ondo adierazi zuen egoera. Errenterian, maiatzaren bi hartan, amaitzen zen Elosegirentzat Batallon de Trabajadoresen bizi izandako sufrimendua. Berriro “gizon” zen, pertsona zen.

## Batalloiarainoko bidea

Jesus Elosegi Irazusta Tolosan jaio zen 1907an eta hiri berean zendu zen 1979an. Argazkilaria, arkeologoa, Aranzadi Zientzi Elkartearen sortzailea, bultzatzailea eta zuzendaria, Jose Migel Barandiaran ikerketen laguntzailea, berari zor zaio Euskal Herriko hainbat dolmen eta mairu-baratzen aurkikuntza eta ikerketa, horien artean Errenteriako mendietakoak eta bat aipatzearen Jesus Elosegik eta Adolfo Leibarrek aurkitu zuten Aitzetako txabala, Txoritokietako dolmena ezin ahaztu.

Argazkilaria bikaina, bere zaletasuna ogibide bilakatu zuen eta 1932an, Tolosako Rondilla kalean argazki etxea zabaldu zuen. Garai horretan *El Día* egunkarian, *Argia* astekarian, *Pyrenaica* mendi aldizkarian eta garaiko prentsan argitaratu ohi zituen bere argazkiak. Jesus Elosegik Errepublikara garaiko euskal pizkundearen kultura eta politika mugimenduaren memoria historikoa bildu zuen bere lanetan, eta horrekin batera garai hartako giroa eta momentua. Mendizaletasuna maite zuen eta bi maitasun horien uztarketatik argazki bikainak atera zituen bere bizitza osoan. Gazte garaitan mendian egindako hainbat argazkietan garatu zuen gero Errenterian erabili zuen plano prestatu ondoren argazki egilea bera argazkian sartzeko metodoa.

Gerrak hautsi zion bizitza. Frankistak 1936ko abuztuaren 12an Tolosan sartu zirenean Elosegiren argazki-denda goitik behera suntsitu zuten. Zorionez argazki kliseak salbu zituen. Elosegi bera eta bere emaztea, Pilar Sansinenea, Ipar Euskal Herrian ziren. Elosegi-Sansinenea senar emazteen atzerriko ibilbidea Jesusen argazkietan segi daiteke. Saran, atzerrian baina ez erbestean, bizi izan ziren lehendabizi. Ondoren Elosegi-Sansinenea senar emazteak Eusko Jaurlaritzak sortu zuen Eresoinka abesbatza eta musika eta dantza taldean parte hartu zuten, abeslari moduan. Horrez gainera, Elosegik Eresoinkaren ibilbidea eta partaideen



memoria grafikoa jaso zuen bere argazkietan. Horietako erreportaje batean jaso zuen Agirre Lehendakariak gonbidatuta, 1938an Lluís Companys, Generalitateko Presidenteak Eresoinkari egin zion bisitaldia Paris ondoko Le Belloy jauregian. Gerra galduta, Eresoinka taldea deseginda, 1939ko udaberri-udaran Elosegik erretratu zituen Ameriketarako erbestaldien irteerak eta horietako batean Le Havreko portuko agurra, argazki bikain bezain tristea.

Bigarren mundu gerra hasita, 1940ko lehen hilabeteetan Jean Ibarregarai ministro frantsesaren aginduz Ipar Euskal Herriatik eta Basses-Pyrénées departamentutik kanpo bizitzera behartu zituzten euskal atzerriratuak. Horrela bizi zen, erbestean, Jesus Elosegik bera 1940ko ekainean alemanak Frantzia garaitu zutenean. Orduan aldatu zitzaizen erbestera guzti haiei berriro bizitzera. Jesus Elosegik oraindik orain martxoaren 25ean Pirinioetan zen mendia egiten, Pic de Ger mendi aurrean egindako argazkiek erakusten duten moduan.



Apirilaren 28an Tarbesen zen eta han ziren ELAko kideen talde argazkia egin ahal izan zuen.



Hor galtzen da argazkien bitarteko ibilbidea. Hurrengo argazkiek "los de la arena" dute izena eta 1940ko irailaren 4ko data dute. Argazkiotan azaltzen dira Batallon de Trabajadores bateko presoak hondarra biltzen Hondarribian. Haien artean, beste preso bat zen Jesus Elosegik.



Frantzia nazien esku geratzeak behartu zuen Francoren diktadurapean bizi zen lurraldera bueltatzera Jesus Elosegik eta bera bezala horretarako aukera zuten beste milaka lagun. Ez zuten beste irtenbiderik. Eta hori horretarako aukera eta suertea izanda. Elosegiren kasuan, Euskadira, Tolosara bueltatzeak suposatu zion lehendabizi Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrutik pasatzea, epaiketa edo antzeko zer edo zer pairatzea eta 10 hilabeteko kondena betetzea, lehorreko galeriano moduan, lan egitera behartua.

### Galeriano batzuen kronika grafikoa

Arkale inguruan bete zuen bere kondena Elosegik. Bere argazki kamera lagun, ikusten denez Tolosako argazkilari handiak lortu zuen kondena betetzen zuen batailoiko agintarien konfiantza irabaztea eta horrela bere espetxe aldiko, galeriano kondenaren kronika grafikoa bildu zuen argazkietan. Horrela, jakin badakigu Elosegik eta bere taldea Arkale gaineko Urdakaitz meategietako abandonatutako barrakoi zahar batzuetan jarri zituztela. Beraien lehenetako lana birrinduak zeuden txabola haiei teilatua ematea izan zen. Hala ere ez pentsa hura atsedean lekua zenik, ikusita Elosegiren "gela" pentsa dezakegu zein gogorra behar zuen han bizitza.





Eta han ziren galerianoak, bortxaz militartuta zeuden behartutako langileak, eta haiek jagoten zituzten soldaduska egiten ari ziren soldaduak eta agintariak. Jesus Elosegik guztien irudia jaso zuen bere argazkietan, taldeka eta banaka, "langileak eta artzaiak" izena jarri zien Gurutzen atera zituen bilduma horren hainbat argazkiei, izen ezin aproposagoa, alajaina.



Argazki ugari atera zituen Arkaleko kanpaleku ingurukoak, horietan bildu zituen han zeuden presoak eta jagole zituzten soldaduak eta horien mandoak. Argazki horietako batean, kanpamendu haren sarreran zegoen faxismo espainiarraren ikurra ikus daiteke, "el yugo y las flechas".



Argi da Jesus Elosegik, bere argazkiekin, jagoten zieten soldaduen konfiantza irabazi zuela. Horren lekuko dira Arkaleko gainean, Gaztelun kokatu zituen argazkiak, bertan azaltzen dira eskoltako soldaduak, banakako zein taldeko argazkietan eta, benetan bitxia, gerretara jolasean, batailak antzezten erretratatu zituen. Argazki multzo hau galeriano gaztiguko lehenetakoa da, 1940ko irailaren 12ko data jarri baitzien Elosegik.

Hamar hilabeteko bortxazko lanetako kondenan, Jesus Elosegik permisoak ere zituen eta horietako batzuetan aukera izan zuen bere emaztearen bisita hartzeko, horren lekukotasuna jaso zuen



bere argazkietan, hala nola 1940ko azaroaren 25eko data duten argazki hauean non azaltzen den Elozegi eta bere emaztea, Pilar Sansinenea, Vilaplana ofizialarekin eta honen emaztearekin erretratatuta.



1940eko Gabonetan beste baimena izan zuten Elosegik eta Batallon de Trabajadores-en zeuden beste preso batzuek. Horren lekukotasuna abenduaren 27ko data duten, eta Oiartzunen kokatu zituen "Faustorekin" izena duten argazki sailean jaso zuen. Hona bat.



Langile batailoiko presoek behartuta zeuden igandero mezatarra joatera, nahi eta nahiez. Oiartzungoak, Arkalekoak gutxienez, zeren Oiartzunen kanpaleku bat baino gehiago izan ziren urte haietan, meza Oiartzungo eliza nagusian, San Estebanen, izaten zuten. Momentu egokia izaten zen, bestalde, atsedena hartzeko eta, Adolfo Leibarrek gogoan duen moduan, Kastro tabernara hurbiltzeko, hor aurkitzen baitziren, nahiz permisoa ez izan, Elozegi Sansinenea senar emazteak, eta edozein kasutan Kastron zuten laguntza eta laguntasuna espetxeratu haiek, Kamio ahizpen babesean eta lagunartean. Mezako bueltako argazki horrek 1941eko otsailaren 23ko data du.



Galdos familiak Oiartzunen kudeatzen zuen ostatua izan zen gaztigatutako gizon talde haren beste babesleku bat. Hori agerian geratzen da ostatu eta famili horren inguruan Jesus Elosegik bildu zituen argazki multzoetan, ugariak baitira gai horrekin egin zituenak. Horietako batzuk ekarriko ditugu hona, horren lekuko.



Eta hortik eratorrita, baita Galdos familiaren argazkiak ere.



Jesus Elosegik Arkale inguruko baserrietako eta bertan bizi ziren lagunaren argazkiak egin zituen. Maitatua izan zen Elozegi, horrenbesteraino, Adolfo Leibarrek gogoratzen duen moduan, Elozegi izan zela Arkale baserriko seme baten aita ponte. Bere argazki bilduman jaso da garai hartako Arkalezahar baserriko familiaren argazkia, baserriko atarian aterea.




garaian hori ez zegoen argazkilari guztien esku. Presoaldi garaian horietako argazki ugari egin zituen, txirringa batekin eta horietako batzuetan bera gainean zela egindako bat ekarriko ditugu horren adibide moduan, "Oartzunen ni" jarri zion izena eta data 1940ko azaroaren 25a du.



Jesus Elosegik punta puntako argazkilaria izan zen, horrenbesteraino gerrak bere ibilbidea hautsi ez balu litekeena izatea ogibidea. Bere argazkietan bere bikaintasuna eta estiloa ikusi dezakegu. Arestian aipatu dugun moduan, bere espezialitateko bat prestatutako argazkiak izan ziren, plano prestatu, eta ondoren automatikoan argazkia ateratzea, planoan eta argazkian egilea sartzeko. Mugimenduan ateratako argazkiak bere beste espezialitate bat izan ziren. Berak egiten zituen

Bere argazkien bidez, Jesus Elosegik Batallon de Trabajadores delako hartan gaztigituta Oartzunen bizi izan zuen urtea gorde zuen. Argazki horiek guztiak Elosegiren funtsean jasoak dira. Jesus hil ondoren, Pilar Sansinenea alargunak argazkiak Lazkaoko Beneditarren Artxiboan utzi zituen



**BASERRIAK ETA BORDAK**

- |                  |                          |
|------------------|--------------------------|
| 1 Pelli-bar.     | 8 Pelu.                  |
| 2 Arantzazu-ane. | 9 Arkaitz lepo'ko bords. |
| 3 Miakazarre.    | 10 Zubitane.             |
| 4 Pelu-berri.    | 11 Ertziñe.              |
| 5 Pelu-txiki.    | 12 Egutera.              |
| 6 Alemandegui.   | 13 Arkale.               |
| 7 Pelu-zar.      | 14 Ametzets.             |

- |                   |
|-------------------|
| 15 Arkale-berri.  |
| 16 Iriso-zar.     |
| 17 Eguzki-alde.   |
| 18 Gurutze-txiki. |
| 19 Gurutze-berri. |
| 20 Txipi-berri.   |
| 21 Txipi-zar.     |

- |                   |
|-------------------|
| 22 Oiamuta.       |
| 23 Altxi-berri.   |
| 24 Altxi.         |
| 25 Iraun-sube.    |
| 26 Antsillez-goi. |
| 27 Sistiyo.       |
| 28 Arpide-txiki.  |

**ITURRIAK ETA ERREKAK**

- |                            |
|----------------------------|
| I Iparraguirre'ko iturria. |
| II Pelu-iturri.            |
| III Ertziñ'go iturria.     |
| IV Arkale-iturri.          |
| V San Juan-iturria.        |
| VI Pintto'ko erreka.       |
| VII Arlot-iturri.          |
| VIII Sistiyo-iturri.       |





lagapenean, Arantzadi Zientzia Elkarteak digitalizatu zituen eta egun ikusgai eta eskuragarri daude Gure Gipuzkoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean. Hortik hartu ditugu Erreterian berriro "gizon" izan zen, Erreterian askatasuna berreskuratu zuen, Jesus Elosegiren historia hau kontatzeko.

Azken lerro batzuk, posdata moduan, Adolfo Leibarrek idatzi zidan gutunaren amaiera kontatzeko, Artikulu honen oinarria diren bi argazkietako lagunen izenak eskatzeko Adolfoi idatzi nion eskutitzean, Elosegik Adolfo Leibarri egindako argazkien berri eman eta horien erreferentzia bidali nizkion. Horietako bat "Adolfo Leibar eta Lile. Zamalbide" du izena. Horrela katalogatuta gorde da Gure Gipuzkoa webgunean.



Horren haritik Leibarrek idatzi zidan: P.D. *La foto de Jesús Elosegui en la que aparezco sobre una moto "Vespa" y asoma un fox terrier de pelo duro –¡y de muy mala leche!, dicho sea de paso–, éste, el perro, no se llamaba "Lile" y sí Lite. Esana geratzen da.*



### Kalbario honen geografi hurbila Urkabetik ikusia

Jesus Elosegik "Batallon de Trabajadores" delakoan zigorra betetzen zuen bitartean argazkietan hartu zituen hainbat argazkiren kokagune zehatza hemen duzuen karta honetan ikus dezakezue. Historia hau gertatu eta hamabost urtetara egindako bista honek Arkale-Gurutze bailara osoa jaso zuen oraindik zutik zirenean, esaterako, Arkaleko barrakoiak: kartaren ezkerreko aldean, goian ikus ditzakezue, ez direla gehiegi aldatu Elosegik bere argazkietan jaso zituenetik. Horrekin batera, hor dituzue Arkale eta Gurutze inguruko baserriak eta tokiak. Adolfo Leibar Axpek eta Carlos Menaya altxatu zuten mapa hau, eta Adolfo Leibar berak bidali zidan, kalbario honetako alde alai bat argitzeko helburuarekin, non den Arkale baserria. Jesus Elosegik baserria eta han bizi zirenak erretratu zituen bere argazkietan. Adolfo Leibar Axpek kartari itsatsitako *post-it* hori batean eman zizkidan argibideak: "Koldo: creo que con este mapa, que hicimos Carlos Menaya y yo en los años 1956/57, podrás localizar bien el caserío Arkale (Arkale-zarra). En él residió Luziano Aristizabal con su familia". Hemen argitaratzen dugun bista eder honen originala, *post-it* eta guzti, Erretereriako Udala Artxiboan duzue, Adolfo Leibarri esker.